

Javier Condek eta Jon Salvadorrek egingo duten lasterketari buruzko artikulua irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua eta, ondoren, idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala.

Zubi gaineko izerdia

Javier Condek eta Jon Salvadorrek maratoi bat egingo dute lehenengoz Bizkaia Zubian.

Getxo eta Portugalete elkartzen ditu Bizkaia Zubiak, eta eraiki zutenetik itsasadarraren bi aldeetako biztanleak harremanetan mantentzeko funtzioa izan du. Erabilera horri muzin egin ez dion arren, aurrerantzean maratoientzako kokaleku ere bihur daiteke.

Oraingoz bakarra egingo da. Larunbatean, zubiaren goiko aldeko pasealekutik 291 joan-etorri egingo dituzte Javier Conde eta Jon Salvador korrikalariek. Itsasadarraren gainetik 45 metrora egingo dute korrika saioa, altueraren beldurrari aurre eginez. «Behera ahalik eta gutxien begiratu beharko dut» adierazi du Condek.

Bizkaia Zubian egingo duten maratoia beste hainbat lasterketaren testuinguruan ulertu behar da. Izan ere, 2010ean Javier Conde basauriarrak elkartasun ekinaldi bati heldu zion. Ordura arte Paralinpiar Jokoetan urrezko zazpi domina eta zilarrezko bi lortuak izanda, kirol ibilbidean nahikoa arrakasta izan zuela iritzi zion, eta Paralinpiar Jokoak eta Olinpiar Jokoak egin diren hiri guztietan maratoiak egiten hasi zen. Helburu batekin: gehien behar duten pertsonentzako dirua biltzea.

Maratoi berezi eta gogorra

Orain arte hamaika korrika saio egindakoak dira Conde eta Salvador —proiektuko zenbait lasterketatan laguntzaile aritu da— baina biek esan dute larunbatekoa berezia izango dela: «Haurrak ginela, gurasoek beti ekartzen gintuzten Bizkaia Zubira, eta orain bertan maratoia egitea oso berezia da».

Baldintzak, ordea, ez dira errazak izango. Izan ere, zubiak 144 metro ditu alde batetik bestera, eta bira ugari eman beharko dituzte bi korrikalariek. «Aldakek asko sufritzen dute horrelakoetan» azaldu du Condek. Entrenamenduak ere egin dituzte zubian; beraz, zailtasun horietara ohituta joango direla espero dute. Edozein modutan, psikologikoki bestelako lasterketak baino zailagoa izango da, Salvadorrek iragarri duenez: «Denbora guztian leku beretik korrika aritzeak gehiago nekatzen du korrikalaria». Baina ez daukate inongo markarik egiteko asmorik, ezta gutxiago ere. «Gure helburu bakarra maratoia amaitzea da». Eta horretarako erritmoa moteldu behar badute, moteldu egingo dute: «Lasterketa lau hankan amaitu behar bada, lau hankan amaituko dugu».

Lander Muñagorri Garmendia (Berria, 12-03-14, moldatua)

Adibidea:

0.- Zenbatgarren maratokia egingo dute Javier Condek eta Jon Salvadorrek Bizkaia zubian?

- a) Maratoi asko korri dituzte Bizkaia zubian.
- b) Oraingoa izango da lehenengoa.
- c) Bizkaian egin den lehena.

1.- Noiztik du zubiak bi herrietako biztanleak harremanetan mantentzeko funtzioa?

- a) Herriak sortu zirenetik.
- b) Zubia egin zutenetik.
- c) Funtzio hori onartu ziotenetik.

2.- Zer erabilera berri izan dezake zubiak aurrerantzean?

- a) Getxok eta Portugaletek maratokia antolatzeko.
- b) Maratoiak bakarrik antolatuko dira.
- c) Lehengoaz gain, maratoiak ere antolatu ahal izango dira.

3.- Zer testuingurutan kokatu behar da maratoi hau?

- a) Javier Condek aurrera daraman elkartasun ekimenean.
- b) Beste maratoi batzuen testuinguruan.
- c) Olinpiar jokoetan lortu dituen garaipenetan.

4.- Zertarako antolatzen ditu maratoi hauek?

- a) Gehien duten pertsonentzako dirua biltzeko.
- b) Behar handia daukaten pertsonen laguntzeko.
- c) Paralinpiar jokoak eta Olinpiar jokoak promozionatzeko.

5.- Zergatik izango da berezia maratoi hau bi korrikalarientzat?

- a) Conde eta Salvador proiektuko laguntzaile direlako.
- b) Bizkaia zubira korrika egitera ekartzen zituztelako gurasoek.
- c) Txikitan sarri ekartzen zituztelako bertara.

6.- Beste lasterketa batzuk baino zailagoa izango al da hau?

- a) Bai. Fisikoki eta psikologikoki, batez ere.
- b) Bai. Leku berean jira eta bira ibili behar baitute denbora guztian.
- c) Ez. Prestaketa egokia egin dutelako.

7.- Zein da korrikalarien xede nagusia?

- a) Marka egitea, dudarik gabe.
- b) Proba finitzea.
- c) Lau hankan amaitzea.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan.

0. b	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.
------	----	----	----	----	----	----	----